



Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

TÍTULO EUSKERA
TÍTULO CASTELLANO

2025-11-14 Laukiz / Lauquiniz 14-11-2025

Alkatea, Ahalduen Nagusia, Herri-agintari eta ordezkariok, Lauaxetaren senitartekoak, jaun-andreok, arratsalde on guztioi!

Eskultura honen izenari helduz hasiko ditut nire hitzak.

Harro egoteko modukoa baita erakundeak, eragileak eta herritarrak elkarlan sendoan aritzea, Lauaxetaren 120. urteurren honetan.

Harro eta sendo, kulturaren bidez harekiko harrotasuna adierazten.

Gaur, eta urte osoan zehar, eskultura, musika, literatura edo erakusketen bitartez.

Euskarak badu atzizki bat, '-le', 'egiten duenari' atxikitzen zaiona.

Lauaxetaren barruan '-le' asko daude. Idazle, sortzaile eta kulturagile. Irakasle, erakusle, eta eragile. Berritzaile, euskaltzale, herrigile eta abertzale.

Euskadiren, giza-duintasunaren eta askatasunaren jagole.

Hori guztia eta askoz gehiago izan zen Esteban Urkiaga Basaraz, 'Lauaxeta'.

Laukizen jaioa, eta Gasteizen eraila, 31 urterekin, Gernikako sarraskiaren berri ematen ari zela atxilotua izan ondoren.

Duela gutxi, haren ilobak, Mirenek, "arteak eraldaketarako duen ahalmena" azpimarratu zuen.

Aintzat hartu beharreko mezua dugu hau, bizi ditugun garaiotan, erantzunak behar ditugulako.

Eta kulturak, akaso, ez dauzka erantzun guztiak, baina balio du galderak egiteko.



Galdera horien bidez, balore indibidual eta kolektiboak garatu eta transmititzen ditugu. Gure nortasun partekatua elikatzen eta indartzen dugu. Eta loturak ezartzen ditugu mundu zabalean.

Lauaxetak garbi ikusi zuen hau, ia bost mende lehenago Bernat Etxeparek ikusi zuen moduan.

Horregatik, biek ere, euskara aukeratu zuten kultura sortzeko eta zabalzeko.

Euskara, Joxe Azurmendi zenak esan zuen moduan, “herri desegin bat berregiteko hautua” zelako: bai Lauaxetarentzat, bai Etxeparearentzat.

Hurrengo astean, hain zuzen, Parisen egongo gara, ‘Linguae Vasconum Primitiae’-k, gure idatzizko obra zaharrenak, 480 urte bete dituelako.

Bi aitzindari, bi urtemuga.

Galderak egiteko balio du kulturak esaten nuen, bai. Eta galdera horien bidez, komunitate izaera sendotu, eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzen ditugu, iragana etorkizunera proiektatuz, ezta?

Hori da gaur Anek, Noeliak eta Wen-ek eskultura honekin egin duzuen ariketa ederra: Lauaxetaren obran barneratu, eta zuen begiradatik berregin, etorkizunera begira.

Hori da euskaldun bezala dugun betebeharra: lehengo eta oraingo sortzaileen ondarean murgiltzea eta balioan jartzea.

Eta hori da Lehendakari bezala berresten dudan konpromisoa: kultur sorkuntza eta ekoizpena bermatuko dituzten politika publikoak sendotzea, Lauaxetak berak egin nahi izan zuen moduan.

Izan ere, gogoratu behar dugu Gerra garaian, lehen Eusko Jaurlaritzan, Leizaolak sortu zuen Euskadiko Kultur Kontseiluko kide izan zela, Estepan, ‘Euskal Hizkuntza eta Literatura’ sailean, hain zuzen ere.



Tamalez, Diktadurak eten egin zuen apustu hura, beste askoren artean.

Bukatzera noa. Urteurren hau aukera aparta da, mitoaz haratago, esaldiaz haratago, Lauaxeta hobeto ezagutzeko eta Lauaxeta irakurtzeko.

Aukera aparta dugu, galderen bidez, elkarrekin, aurrera egiten jarraitzeko.

Jauzia eman beharrean dagoelako hark maite zuen euskera, gure hizkuntza.

Babes premian dagoelako hark bizitzarekin defenditu zuen demokrazia eta, batez ere, maite zuen askatasuna.

Eta, hura bezala, zentzua bilatu nahian gabiltzan gizaki espiritualak garelako.

Zuen baimenarekin, 'Euzkadi'-n idazkarian idatzi zuen poema batekin amaituko dut.

Hala dio estrofa:

“Mendi goyan dabil

zorion-izpia.

Mendi goyan dago

zeruko bidia.

—Abil, abil, abil

mendi goi-goraño!

Ortzia argi dago,

itxasua laño...”

Lauaxeta beti gogoan. Goian bego eta guban bego. Mila esker guztioi!